| JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA | **Espediente zk.:** / N.º Expediente: **2023WIZE0006** | **Dirulaguntza izenduna** Subvención nominativa |
|---|---|---|
| | **Sarrera-erregistroa /** Registro de entrada | 2023/01/23 - 000732 |
| | **Titularra:** / Titular: | AMPA KARMENGOTARRAK IGE |
| | **Ordezkaria:** / Representante: | MARIA LIZARRETA GARMENDIA |
| | **Gaia:** / Asunto: Karmengo AMPA 2022-2023 ikasturtean Eskola Kirolarako progaman garraio kolektiboan mugitzeko froga pilotorako diru-laguntza eskaera. | |

## HITZARMENA

Pasaiako udalerrian,

## BILDURIK

Pasaiako udal idazkaria den Aitziber Latasa Sorondo jaunaren/andrearen aurrean

Alde batetik, Izaskun Gómez Cermeño andrea/ jauna, Pasaiako Udaleko alkatea (IFZ: P 2006900A).

Bestetik, MARIA LIZARRETA GARMENDIA jauna/andrea (NAN: 44170565P ), AMPA KARMENGOTARRAK IGE(r)(e)n ordezkaria (IFZ:G20702650).

Bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun beharrezkoa eta nahikoa aitortzen diote elkarri, eta hau

## ADIERAZTEN DUTE:

I.- Ekainaren 11ko, Euskal Herriko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak dioena betez, Udal administrazioei dagokie, Foru Organoek bultzatzen eta lantzen dituzten eskola kiroleko programak aurrera eramatea, betiere parte-hartzea koordinatua izanik.

II.- Eskola kirolari buruzko 160/1990 Dekretuko 11. artikuluak dioenaren arabera, ikastetxeak dira eskola kirola praktikatzeko oinarrizko guneak eta neurri berean, arduradun dira prestakuntzaren arloan, antolakuntzaren arloan eta administrazioaren arloan ikasle guztiek kirolean parte har dezaten.

## CONVENIO

En el municipio de Pasaia,

## REUNIDOS

Ante el/la secretario/a municipal D. Aitziber Latasa Sorondo

De una parte, D./Dña. Izaskun Gómez Cermeño, alcalde/sa del Ayuntamiento de Pasaia, con NIF: P 2006900A.

Y de otra, D./Dña. MARIA LIZARRETA GARMENDIA, con DNI n.º 44170565P , en representación de AMPA KARMENGOTARRAK IGE, con NIF G20702650.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad necesaria y suficiente para firmar el presente documento, y a tal efecto

## EXPONEN:

I.- Que, de conformidad con la Ley 14/1998, del 11 de Junio, del Deporte del País Vasco, corresponde a las Administraciones municipales la participación coordinada en la ejecución de los programas de deporte escolar elaborados y aprobados por los órganos forales correspondientes.

II.- Que, según establece el artículo 11 del Decreto 160/1990, sobre deporte escolar, los centros escolares constituyen el marco básico para la práctica del deporte escolar, y que son los responsables, en la vertiente formativa, organizativa y administrativa, de posibilitar la práctica deportiva de todos los escolares.

ESKUca0cf9c1-856b-4cf3-89eb-b23bff6c1e12

III.- Pasaiako Udala eta Karmengo Ama Ikastetxea bat datoz araudi honekin eta bi aldeen nahia da, udalbatzak eskola kirolaren laguntza eta kudeaketarako sormen eta garapen egiturak ezartzea, bai ikastetxean bai udalerrian.

III.- Que, de acuerdo con la citada normativa, el Ayuntamiento de Pasaia y el Centro Karmengo Ama Ikastetxea consideran de mutuo interés la participación de la corporación municipal en la creación y desarrollo de estructuras de gestión y atención al deporte escolar, tanto en el centro escolar como en el propio ámbito local.

IV.- Karmengotarrak Ige Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak Pasaiako Udalari jakinarazten dio elkartearen arduretako bat ESKOLA KIROLAren jarduera antolatzea dela.

IV.- La Junta Directiva del Ampa Karmengotarrak Ige pone en conocimiento del Ayuntamiento de Pasaia de que una de las responsabilidades de la asociación es la organización de la actividad de ESKOLA KIROLA.

Jardueran parte hartzen duten haurrek lehiaketa guztietara joateko betebeharra dute.

Las niñas y niños que participan en la actividad tienen la obligación de cumplir con la asistencia a todas las competiciones.

Familia batzuen egoera sozioekonomikoaren ondorioz, haur batzuek ez dute, kasu askotan, asteburuetako lehiaketetara joateko modurik, edo helduen laguntzarik, eta, beraz, ezin dira lehiaketetara joan.

La situación socioeconómica de algunas de las familias no les permite, en muchos casos, disponer de forma o compañía adulta para desplazarse a las competiciones de los fines de semana, por lo que no pueden acudir a las competiciones.

Guraso Elkarteak jakin du badirela adingabe batzuk benetako zailtasunak dauzkatenak saio horietara joateko, familia-egoeragatik; eta, gure ustez, arazo hori konpondu egin behar da.

El AMPA se ha encontrado menores con verdaderas dificultades para poder acudir por su situación familiar, cuestión que entendemos se debe solucionar.

Hori hala izanik, ezin ditugu adingabe horiek alde batera utzi, saioetara ez joateko arrazoia ez baita utzikeria, bizitzea egokitu zaien familia-testuingurua baizik.

Constatando este hecho, no podemos sancionar a estas y estos menores por un hecho que responde más al contexto familiar que les ha tocado vivir que a la dejadez.

Horiek horrela, eta kontuan izanik udalak Pasaiako adingabe guztiak eta aukera-

El AMPA manifiesta que desde el ayuntamiento se vela por todas y todos los

ESKUca0cf9c1-856b-4cf3-89eb-b23bff6c1e12

berdintasuna zaintzen dituela, Guraso Elkarteak eskatu du dirulaguntza izendun bat emateko aukera azter dadin, denboraldi honetan proiektu pilotu bat garatzeko, ESKOLA KIROLAren jardueran parte hartzen duten gure haurrak haien begiraleekin asteburuko saioetara garraio kolektiboan joan daitezen.

menores pasaitarras y por la igualdad de oportunidades y es por ello que ha solicitado que se valore la concesión de una subvención nominativa para de desarrollar un proyecto piloto esta temporada cuya finalidad sea que nuestras niñas y niños que participan en la actividad de ESKOLA KIROLA se puedan desplazar a las competiciones en transporte colectivo con sus monitores y monitora para así poder cumplir con la asistencia de los fines.

Honen ondorioz, bi aldeek ondorengo baldintzak oinarritzat harturik, hitzarmen hau egin dute:

Como consecuencia de este mutuo interés, ambas partes otorgan el presente convenio conforme a las siguientes

**KLAUSULAK**

**CLAUSULAS**

Lehenengoa.- Karmengo Ama Ikastetxeak egitura sendo bat garatuko eta beharrezkoak diren bitartekoak jartzeko konpromisoa hartuko du Eskola Kirolarako programan kirolariak asteburuko saioetara garraio kolektiboan mugitzeko proiektu pilotoa garatzeko.

Primera.- El Centro Escolar Karmengo Ama Ikastexea asume el compromiso de impulsar, arbitrando los medios necesarios para ello, la creación y desarrollo de este proyecto piloto para el desplazamiento en transporte colectivo de escolares del centro educativo de Karmengo Ama a las competiciones de deporte escolar comarcal.

Egitura honen barruan, Geak eta kirol koordinatzailearen figuraren arteko eginkizunak kontuan hartuko ditu eta, era berean, eskola kiroleko teknikari nahikoa izatea aintzat hartuko du. Era honetara, ikastetxeak antolatzen eta garatzen dituen eskola kiroleko jardunaldien beharrei, erantzun egokia eman ahal izango zaie proiektu pilotoa modu egokian burutzeko.

Esta estructura deberá coordinarse entre el AMPA y la figura de coordinador(a) deportivo(a), así como un número suficiente de técnicos/as de deporte escolar, de forma que satisfagan las necesidades derivadas de la organización y desarrollo de las actividades de deporte escolar que el Centro escolar programe y realice y las necesidades de este proyecto piloto.

Ikastetxeak beharrezkoak diren irizpideak ezarriko ditu ezinbestekoak diren lotura egokiak bermatzeko eskola kiroleko egitasmoak programatzen dituen asteburuko saioen, egutegien eta ordutegien eta eskola

El Centro Escolar deberá determinar las formas más adecuadas de articular la planificación de las necesidades del transporte de forma que se garantice la correcta alineación entre las actividades de deporte

ESKUca0cf9c1-856b-4cf3-89eb-b23bff6c1e12

kirolako ekipoan beharrak asetzeko.

escolar, el calendario, los horarios y los diferentes equipos.

Bigarrena.- Ikastetxea eskola kiroleko helburu hezigarriak betetzen saiatuko da. Ikasle guztiei jardueretan parte hartzeko aukera emango zaie eta helburuak jarraitzen dituztela bermatuko dute.

Segunda.- El Centro Escolar velará por el cumplimiento de los objetivos educativos del deporte escolar, posibilitando la participación de todos los escolares en las diferentes actividades en condiciones que garanticen la consecución de dichos objetivos.

Hirugarrena.- Zuriketa eta ordainketa.

Tercera.- Justificación y pago.

Ikastetxeak ekainaren 1etik 30a bitartean, behin eskola kirolako programako asteburuko jarduerak amaituta, ondoren aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Proiektuaren diseinua (helburuak, edukia eta antolaketa) eta balorazioa.
- Laburpen taula batean datu guzti hauek aurkeztuko ditu: Zenbat eta zein asteburuetan erabili den zerbitzua, zenbat autobus eta bidai kopuruak bakoitzean, bidai bakoitzeko ikasle kopurua, garraio kolektiboan joan ez diren ikasle kopurua, jardunaldira joan ez diren ikasle kopurua eta horietatik zeintzuk ez duten justifikatu asistentzia, zenbat familia-kide joaten diren bidai bakoitzean, garraio kolektiboan joaten diren ikasleak kontuan hartuta, zenbat familia-kide joaten diren beste garraio motetan, zenbat ikasle joaten diren bakarrik (familiarik gabe) eta bidai bakoitzean joaten diren begirale kopurua. Datu guztiak sexuka eta taldeka xehetuta.

Del 1 de junio hasta el 30 del mismo mes, una vez concluidas las jornadas de fin de semana del programa de Deporte Escolar, el Centro Escolar deberá presentar la siguiente documentación:

- Justificación, objetivos, diseño, organización y conclusiones del proyecto piloto.
- Entregará una tabla resumen con todos los datos relativos a número de fines de semana en los cuales se ha usado el servicio, número de viajes/autobuses en cada fin de semana, número de escolares en cada viaje, número de escolares que no han ido en transporte colectivo, número de escolares que no han acudido a cada jornada, número de escolares que no justifican su asistencia, número de familiares que acuden en cada viaje, número de familiares de las cuales sus hijos/hijas van en autobús y la familia acude por otros medios, número de escolares que acuden solos sin familia y, finalmente, número de monitores en cada viaje. Todo ello desglosado por sexos y equipos.

ESKUca0cf9c1-856b-4cf3-89eb-b23bff6c1e12

- Sortu den egituraren diru-sarrera eta gastuen balantze zehatza eta horren zuriketarako beharrezkoak diren fakturak.

Behin dokumentazioa aztertuta, beharrezkoa balitz, dokumentazio gehigarria eskatuko zaio. Zuriketa ondo egina dagoenean dagokion dirulaguntza guztia ordainketa bakarrean bideratuko da.

Laugarrena.- Hitzarmen honetan zehazten den proiektu pilotoaren prozesua berrikusi egingo du Udalak. Honetarako, Udalak eskatzen dionean, Karmengo Ama Ikastetxeak informazioa pasatzeko konpromisoa hartuko du.

Bostgarrena.- Hitzarmen honetan azaltzen diren klausulen inguruan zalantzaren bat sortzen bada, Udalak emango dio honi irtenbidea.

Seigarrena.- Klausula hauek betetzen ez badira, hitzarmen hau bertan behera gelditurko da eta horren ondorioz, Karmengo Ama Ikastetxeak derrigorrez itzuli egin beharko ditu jaso izandako diru-ekarpenak.

Egitasmoa gauzatzeko Pasaiako Udalak diru-laguntza emango dio AMPA KARMENGOTARRAK IGE(r)i, honela banatuta:

- Balance detallado de ingresos y gastos de la estructura creada y todas las facturas de gasto asociadas.

Una vez analizada la documentación, se requerirá, si fuera preciso, documentación complementaria. Una vez comprobado que la justificación documental es correcta, se procederá al abono de la subvención que corresponda en un solo pago.

Cuarta.- El Ayuntamiento ejercerá la supervisión del proyecto piloto objeto del presente convenio, comprometiéndose el Centro Karmengo Ama Ikastetxea a facilitar los datos e información que le sean solicitados.

Quinta.- El Ayuntamiento resolverá cualquier duda que pueda surgir de la interpretación de las cláusulas del presente convenio.

Sexta.- El incumplimiento de las cláusulas del presente convenio conllevará la rescisión del mismo, obligándose al Centro Karmengo Ama Ikastetxea a la devolución de las cantidades percibidas a cuenta.

Para llevar a cabo dicho proyecto el Ayuntamiento de Pasaia otorgará a AMPA KARMENGOTARRAK IGE esta subvención, repartida de la siguiente manera:

- 1 13.481.08.341.00 2023 - A 486/2023: 7.200 €

Hitzarmen honen **iraunaldia** 2023/01/01(e)tik 2023/05/31(e)ra artekoa izango da, bi egunak

La **vigencia** de este contrato será de 01/01/2023 a 31/05/2023, ambos inclusive.

ESKUca0cf9c1-856b-4cf3-89eb-b23bff6c1e12

barne.

**Hitzarmen hau Diru-laguntzen Udal Arautegian eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean oinarritzen da.**

**Este convenio se fundamenta en la Normativa Municipal de Subvenciones y en la Ley General 38/2003 de Subvenciones.**

**Hitzarmen hau gauzatzerakoan sor litekeen edozein zalantza, eta baita aurreko klausuletan aurreikusi gabeko guztia ere, Udalak ebatziko du, diru-laguntzen arautegian ezarritakoaren arabera.**

**Cualquier duda que pueda surgir en el desarrollo de este convenio, así como cualquier aspecto no previsto en las cláusulas anteriores será resuelto por el ayuntamiento, en virtud de lo establecido en la normativa de subvenciones.**

**Norberaren foruari uko eginez, honako agiri honen sinatzaileek, berorretatik suerta litekeen edozein arazo ebazteko, Administrazioko Auzien Jurisdikzioko Auzitegiaren eskumenaren mende ezartzen dituzte beren buruak.**

**Los firmantes de este documento, renunciando a su foro personal, se ponen a disposición del Juzgado y Tribunales de lo contencioso-administrativo para resolver cualquier problema que pueda surgir del mismo.**

**Diru-laguntza bateragarria izango da xede bererako ematen diren bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin, baldin eta beste edozein administrazio edo erakunde publikok nahiz pribatuk, edo bertako, edo Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundek emana bada.**

**Esta subvención será compatible con otras subvenciones ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera otras administraciones o entes públicos o privados, de la CAV, de la Unión Europea o de organismos internacionales.**

Eta bien aldetik adostasuna adierazteko, hitzarmengileek idatziz jasotzen dute agiri hau, edukia baieztatzen eta berresten dute, eta hiru kopiatan eta ondorio bakarrerako sinatzen dute.

Y, en prueba de conformidad, ambas partes recogen por escrito este documento, se afirman y ratifican en su contenido y lo firman por triplicado y a un solo efecto.

| PASAIAKO ALKATEA | AMPA KARMENGOTARRAK IGE |
|---|---|
| Izpta.: Izaskun Gómez Cermeño | Izpta.: MARIA LIZARRETA GARMENDIA |



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUca0cf9c1-856b-4cf3-89eb-b23bff6c1e12**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410***